

2022 MAI. 31 - 14:25h

Nagore Belastegi



Arrate Egañaren 'Itzalen distira', argilunez betetako ipuinen bilduma

Egunerokotasuneko egoerak deskribatzen ditu Egañak bere liburu berrian. Egin ohi ditugun sakrifizioak eta batentzat egoera txarra denetik beste batek zerbait ona ateratzeko duen gaitasuna dira guztiak elkar-lotzen dituzten gaiak. Hitzez gain, azaleko irudia ere berea da.



Arrate Egaña 'Itzalen distira' liburuaren aurkezpenean. (Andoni CANELLADA | FOKU)

Argien eta itzalen arteko dikonomia klasikoa da Arrate Egañak idatzi berri duen liburua osatzen duten ipuinen gai nagusietako bat. 'Itzalen distira' (Erein) argitaratu arte igaro den urtebetean, argitaletxera eraman zuen zirriborroa izugarri eraldatu da. «Inoiz ez dut ikusi hain azkar eta hain barruraino ulertu duenik adierazi nahi nuena», esan du idazleak Uxue Razquin editoreari buruz, zeinek prozesuan lagundu dion. Izan ere, Egañak ez du sinisten «autorearen sakralizazioan», askotan liburu baten atzean lan handia dagoelako.

Razquinek azaldu du narrazio bilduma bat dela, eta istorio guztiek amankomunean dutela egunerokotasuna bihurtzen dela. «Askotan ez dakizu zein izango den irtenbidea, eta hobe jakingo ez bagenu», aipatu du istorioen izaera ilunari erreferentzia eginez. Irati Jimenezek behin aipatu omen zuen euskal literaturan gris asko dagoela, eta Egaña hortik ateratzen saiatu da. «Badago momentu bat non logika irauli egiten den», aipatu du editoreak egunerokotasunean topatzen ditugun egoerak direla argituz.

Gelaz osatutako etxe metaforikoa

Bilduman sartuko zituen ipuinak aukeratzeko garaian sailkatu behar izan zituzten. «Atxagak esan izan du bere obrak pixutan sailkatzen dituela. Nik etxe bat bezala irudikatzen dut, gela desberdinekin. Ipuin bakoitza gela bat da. Batzuk ez dira familiakoak, eta gela horiek giltzaz itxi nituen, baztertu egin nituen. Beste batzuk jantziago zeuden, mueble dotoreekin, eta beste batzuk biluzik zeuden, apaintzea behar zuten», kontatu du metafora batekin.

Pixkanaka aukeratutako 'gelak' apaindu egin zituen, presarik gabe, eta hori da lortu duen emaitza. «Oso desberdinak dira baina badaude gai edo estilo batzuk denak lotzen dituztenak», esan du. Tartearen, zahartzaroen eta heriotza, sakrifizioa eta itzalak eta argiak. «Tristeza da baina normala da baten itzaletik beste batetik argia ateratzea», adierazi du idazleak.

Adibide betzala, 'Itzalak' deituriko ipuina laburtu du. Familiako hiru emakumeek zerbait kontatu nahi dute, baina ez dakite nola, zaila egiten zaie. Orduan, zerbait gertatzen da, egoera ilun bat, dena eklipsatuko duena, eta emakumeek aukera hori baliatzen dute nahi dutena egiteko. «Nik uste dut emakume askori gertatzen zaigula hori, egoeraz baliatzea, umeak bezala: ea lurrikara bat dagoen eta horrela ez noa eskolara», azaldu du.

Egañak berak esan duenez, hizkera zuzena eta zehatza erabiltzen saiatu da hori irakurtzea gustatzen baitzaio. Era berean, fikzioa hautatu du, genero hori gustatzen zaiolako, nahiz eta interesatzen zaizkion gaiak jorratu dituen.

Emakumeak nagusi

Pertsonaiei dagokionez, gehienak emakumeak dira, baina ez heroiak, baizik eta pertsona normalak, adin, nortasun eta egoera desberdinekin. Gizon batzuk ere ageri dira, baina «ezohikoak» dira: «bortxatua izan den gizona, maitasunagatik negar egiten duena...». Egañak dio bera ez dela «oso intimista», baina pertsonaien pentsamenduetan sakontzen saiatu da, emozioz kargatu gabe.

Bere kasuan, 'Final destination' izena darama ipuineko emakumearekin sentitzen da identifikatua, pantailako fikzioekin obsesionatuta dagoena, bahitua, eta «keinu heroiko» bat egiten duena hortik ateratzeko.

Izenburuari dagokionez, Razquinek aitortu du bereziki zaila dela ipuin bildumei izena jartzea. Normalean guztien ezaugarriak biltzen dituen ipuinaren izena jarri ohi da eta hori egin dute oraingoan.

Azalak ere gai nagusiekin badu harremana. Egañak berak margotutako koadro baten zatitxo bat da, non txori bat sakrifikatua den, eta kolore argi eta ilunak dituen. «Sakrifizioaren ideia aspalditik daukat buruan eta koadroa oso zaharra da», aipatu du.


PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA




Klikatuenak




Vecinos de Eibar expresan su malestar por la compra de un edificio a los dueños de Verter




Frantxoa Larraburu se tue en parapente



Messi descubre la pelota vasca en Lezama y se sorprende con la pala



Marathon de Biarritz : la circulation sera fortement perturbée



Un juez español propone investigar una denuncia contra Petro por un secuestro en 1981


Interesgarria izan daiteke zuretzat



EUSKAL HERRIA

«A todas nos han metido mano en sanfermines, todas hemos tenido miedo»


Aritz Intxusta



MUNDUA

Renacer en Europa: dos años después de ser rescatados por el 'Aita Mari'

Marta Maroto



MUSIKA

Badiatik abiatu eta Hatortxurako bidea egingo du Puerto Santa Marian sortutako gitarra batek

Markel Agirregabiria



GASTRONOMIA

Técnicas de cocina para todos

Javi Rivero

naiz:

Info

Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Kirolak

Futbola
Saskibaloia
Eskubaloia
Pilota
Txirrindularitza
Arrauna
Motoak
Herri Kirolak
Errugbia

Iritzia

Editoriala
Zugazart
Artikuluak
Zuzendariari eskutitzak
Iritzi Blogak

Kultura

Bideoak

Argazki galeriak
Audioak

Eskelak
Denda
Eguraldia

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

irratia ZUZENEAN